



ERRADIOGRAFIA



MARGOTUAK

ARGAZKIAK: ARIE VAN'T RIET

“HORI ARTEA DA” ESAN OMEN ZIOTEN ERRADIOGRAFIAK IKUSITAKOAN; eta orduan egin zen artista Arie Van't Riet. Berez, fisikari mediku gisa definitzen du bere burua Van't Rietek. X izpietan espezialista da. Egun batean, lagun batek koadro bati erradiografia bat egiteko eskatu zion. Oso gauza mehea zen, eta ez zuen inoiz halako ezeren erradiografiarik egin. Probatzea erabaki zuen, eta emaitzarekin harrিতuta gelditu zen.

Orduan, oraindik gauza finagoekin proba egitea pentsatu zuen; loreekin, adibidez. Herbehereetako izaki, tulipan-sorta batekin egin zuen lehen proba. Hainbat plaka atera, digitalizatu eta ordenadorean kolorea eman zien. Eta loreen erradiografiak egiten jarraitu zuen. Zerbait falta zitzaiola konturatu zen arte: animaliak.

Intsektuekin hasi zen. Loreen artean jarri zituen, eta oso ondo gelditzen zela ikusi zuen. Izan ere, erradiazioa antzera xurgatzen zuten tximeleten eta burduntzien hegoek eta loreen petaloek eta hostoek.

Gero animalia handiagoak sartzen hasi zen. Hasteko, disekatutako hegazti bat erosi zuen, jakin gabe disekatutako animaliek azala besterik ez dutela, eta, beraz, ez ziola ezertarako balio. Orduan, errepidean hildako animaliekin, lagunek bildutako narrasti hilekin, edo inguruko umeez ekarritakoekin jarraitu zuen. Landareak, adarrak eta animaliak hartu eta X izpien hodiaren eta plakaren artean jartzen ditu, “biorama” deitzen dien konposizio naturalak egiteko. Elementuek lodiera eta dentsitate oso desberdinak dituztenean, ez da erraza irudi on bat lortzea. Kasu horietan, X izpien energia ete intentsitate desberdinekin jokatzen du Van't Rietek, dena irudi berean ikusi ahal izateko. Orain, bioramak hiru dimentsiotan egin nahian dabil artista. ●



Erradiografia
margotu gehiago

SAREAN+















